


[13]

1932 - Harbor

3



Kristau-sekulartasunak ez du, beste gabe, Jainkoaren heriotza edo bapa teko Beronen ezkutatzea oihukatzen; baizik-eta erlijioaren arabera, gizonaren zoritxar eta mugetan finkatu - rik, errealitate ororen froga, esplikazio-bide eta zientzia sistimaren giltzarritzat hartzen den Jainkoaren heriotza:hots, gizonak bere hutsune eta dorpeziak estaltzeko hartu izan duen Jainkoaren ezkutatzea, horra.

H. Chaigne-k



EUSKALTZAINDIA  
AZKUE BIBLIOTEKA

# AINTZIN-2-SOLASA

Halere, gure egoera besterik da, aldizkariari gagozkiolarik behintzat, duela hilabete batzuetako egoerarekin konparatzen badugu. Ari da irakasle jendea bere pentsakizun eta gogoetak iskribuz emateko ohitura hartzen. Ez da gaizki ala fede! Egia esan, ez gara orain arte bezain bakar sentitzen aldizkariaren arduradunek gaur egun.

&%&&%&%&%&%&%&

Azkeneko txandan gurasoekiko arazoa ukitu zen, eta agidanez, arazo bizia da. Honi buruz izan da hain xuxen aportaziorik handiena oraingoan idazleen aldetik. Hiru artikulo:bata teoriakoa, Kepa Hernabidek lehenaren jarraipen bezala eskaintzen daukuna; beste bi praktikotasun alderdiari atxikiak:Marixabelek, Goiherriko gurasoei buruz, eta Ormaiztegiko andereñoek hango eztabaidaren informazio bezala.

%&%&%&%&%&%&%&

Dena dela, gauza bat agertzen dauku egoera berri honek: idazle ugaltzeak berekin duela baita irakurleen ugaltzea ere, eta ondorioz, gutienez, hauen interesa goititzen edo gehitzen johatea. Bestalde, ordea, ez gaude hain seguru irakurle soilari bizkorgarri ote zaizkion benetan hemen erabiltzen eta jorratzen diren gaiak.

%&%&%&%&%&%&%&

Iduri du, aski pisu eta mokorra ez ote den gertatzen ari zenbaitentzat gure aldizkaria; funtsik eta interes gabeko beste batzuentzat, eta azkenik, bederen zenbait artikulu hagitz gogorrak, hots, arras iraultzaile girokoak, esango genuke, gaur egungo hiztegiari jarraituaz.

%&%&%&%&%&%&%&

Irakurle nahiz idazle hori, har dezagun oraino hasi-bidea urratu baizik eta nortasuna bilakatzen diharduen aldizkari ttar bat besterik ez dela pentsatuaz, edo-eta pedagogiaren eremøan gauza serio bat egiteko guztiz urrun den aldizkaritzat.

%&%&%&%&%&%&%&%&

Kritika egitekotan, aurrez badaki onartua izanen dela, betor idatzirik, eta ahalik zehazkien seinala ditzala gure hutsune eta hanka zuloak, baina ez dadila maila horretan gera. Ekar diezaigula erre argia, argi berria, bidea xuxenkiago egin dezagun eta aintzinerat gida gaitzan.

&&&&&&&&&&&&&&

# GURASOEI HEZIKETAZ (II)

Heziketa, aberastasun eta desarroilo izan behar luke. Bizitzan finkaturik, jendea giza ekintzarako beharko luke prestatu.

Egungo eskolak prestaketa honen jatorrasunik ez du lor ahal, pre dikuez, hitzez eta formula hutsez baliatzen bait da. Eta bide hauek enplegatzean datza hain zuzen ere, egungo heziketaren errua eta gezurra.

Hitzek, nahiz eta zenbait jesuitek eta idazleek bestela pentsa, ez bait dezakete heziketaren jatorrasuna neur. Halere jendeak ez du behingoan heziketa bide hauetan sinesmenik galduko eta hontaz hezitzaile asko dira baliatu. Hitzek finkatzen ez badute, ekintzek oinarritzen dute heziketa.



Ez zurginek ez nekazariak dute beren ofizioa lehenik liburuetan ikasten eta gero ikasitakoa ekintzetan frogatzen. Ez, bidea besterik da. Praktika tu hala, bere ofizioaz dira jabetzen eta bere jakintza finkatuz dohaz.

Beraz, langile trebeak, arian-arian dira bere ofizioaren jabetzara heltzen. Giza mailan antzeratsu gertatzen da. Formulak bidez ez da pertsonaren muina harrapatzen eta guttiago jokabidea hobetzen. Esperientziak, giro sano bateko bizitzak, beti pertsona bakoitzaren berezitasunei atxikia dagoela, sortzen eta elikatzen du egiazko hezibidea.

Esan dezagun argi eta garbi. Behera eskolastikako hitz-jario eta formula hutsek, behera ere hitzetan oinarritzen den moral faltsoa eta jo dezagun egiazko bizitzaren aldapan gora. Honen neke eta lanetan bakarrik bait dira egiazko pertsona kementsuak errotu eta heltzen ahal!

Sor dezagun bada eskola materialista, hots, hitzetan eta sistime tan gehiegi fidatzen ez dena eta lanaren eta bizitzaren seiloaz mar katu eta mamituko dena.

Heziketa materialista hone<sup>n</sup> helburua ez da nehola ere izpirituaren eta ideien balorea baztertzea, burgesiaren eta kapitalismoaren joera nagusi bat salatzea baizik: alegia kapitalista gizarteak, adime na izpiritua eta morala, gizonen ardua materialetatik berezirik jar tzen ditu, lehenak baloratuz eta bigarrenak mespretxatuz. Berezkun tza hau oso arriskutsua ikusten dugu, eta gure eskakizun egiazkoak sostengatu beharrean, balore ideal batzuetara eragiteko oso apropo sak dira. Bizitzatik at eramanen gaituen ikuspegirik onar ezina da.

Heziketa, bere esanahi zabalenean harturik, materialista da, eguneroko arkikundeek egi aztatzen daukutenez. Gorputzaren zati ba koitzak bere funzioa bete ezik ez dago ino lako aurrerapenik. Ideak eta teoriak espe riantzien atzetik datoz normalki eta experi entzien irakaspeneak ulertzen laguntzen dau kute. Eta frogarik garbiena zera da: bene tako bizitza eskas denean, ez dagoela idea zorrotzik eta eraginko rrik.




Oraindik eta hainbeste urteren buruan hitz hustelek hartu du ten alor aberats hau nolabait haize osasuntsuaz xahutzeko, eskola ko materialismoa indartu egin behar dugu. Era guztietako proble ma eta zailtasunei material mailan erantzuna ematen saiatzen ga relarik.

Gure eguneroko lanean ikusi dugu eta eskolako langintzan fro gatut ahal izanen dugu eskoletan diren akatsik nabarbenenak: beldu rra, alferkeria, urduritasuna batetik, intelektual harrotasuna, idea lismoa eta intolerantzia bestetik zuzendu eta nolabait gaintu ahal izateko bide bakarra gizonen organo guztiez bateratsu lanean ari izatea dela, indar guztiak bere neurrian enplegatuz gizonen lan gaitasunak armonikoki desarroila ahal izateko.

Haur alfer, erabeti nahiz gezurti bat dakarkigutenean ez dugu uste hitzezko edo azaleko tratamendu baten bidez deus egin daitekeenik. Horregatik halako hauerrei dagokien eta galdua duten bizitza-giroa berbizten eta bertan librok mugitu daitezela laguntzen saiatzen gara. Azkenik, bizitzak ditu gaitzak hauek, inork hau egin baitezake bederen, sendatuko.

Heziketa hau materiala dei dezakegu. Baina eskolak sortu duten gaitz asko senda ahal izateko gizarte-giroa bere osotasunean saioa eta pertsona soilen lagungarri gertatu behar du, eta hau honela ez izanik, hots, kanpoko giroa erabat makal denean, askoz ere zailago da hezitzaileen lana gertatuko.

Eskolaren ardurarik nagusia burua betetzea eta amueblatzea izanik oso axola tippia zaio heziketa oinarritzea. Eta gure artean argi gera dadin gure eskakizunen artean zeintzuk diren lehen mailako edo premiazkoenak prinsipio nagusi hau, hots, materialismoarena garbitzen ahalegindu gara.



Batez ere zuen haurreen bizitza eta osasuna duzue zaindu eta egokitu behar, hauek bait dute zuen semeen aurrerapena arras baldintzapean jartzen eta erraztu nahiz zailtzen.

Osasunari buruz ari gaitzaizkizuen nahi dugu ongi uler gaitzazuen. Ez dugu uste ongi jan eta atsedenean hurrek neka ez daitezela, eduki behar dituzuenik, ez; Osasuna funtzio guztiak bateratsu desarroilatzen denean bakarrik ematen da. Eta funtzio batzuk azkarregi, besteak motelegi desarroilatzen direnean, osasuna arriskueta datza. Reakzio-gaitasuna edo arretoa, guti daitezenean zer aditza eman nahi duten idorotzea, zuei dagokizue.

Eskola guti arduratzen da baldintza hauetaz eta eskola egin ez dezana zuek esijitu behar duzue!

- Eska ezazue zuen haurren eskola-gelak haizetsuak ongi argituak eta garbi askiak izan daitezzen.

- Ez zazuela inola ere onar, irakasle bakoitzari arrazoizko lirateken ikasleak halako bi eman dakizkioten. Oso egun txarrak pasa araziko dizkiozue eta denen kaltetan izanen da. Han egonen dira bai, baina egon besterik ez!

- Eskola-lanez gainezka dagozen ikaslek indar-ahiturik itzultzen dira etxera. Eman gutienez egiazko bizitzak eskaintzen dituen joku eta jostaketan atseden mesedegarria eta ez inola ere etxerako lan astunak eman dakizkien permiti. Sei orduz lanean ariz gero, hauek razionalki partitzen direla aski lan atera daiteke eta hementik gorakoak alferrik xahutzen dira!

- Inola ere ahantz behar ez duzuen zera da: Zuen sari hobetzeaz eta lanaren baldintzak mejora dakizkizuen burukatzen zeratenean, zuen haurren heziketaren alde ateratzen zeratela! eta zuen aurka ateratzen den regimena berebat zuen haurren heziketaren aurkako duzuela!

Zuen eguneroko burrukak eta zuen hurrei eskaintzen zaizkien heziketa posibilitateak hertsiki lotuak dira eta haintzakotzat behar dira hartu! Ez da inondik ere posible alde batetik zuek kondizio negargarrietan lanean zanpatzea eta bestetik zuen hurrei kondizio hauetatik atera ko dituen eskola mota eskaintzea. Eskola kapitalistak ongi daki bere fruitu en berri eta ez ditu bere kaltetarako izanen diren langileen haurrak prestatuko!



Bi arazo hauk elkar uztarturik dituzue: Zuen miseria, zuen haurren miseria da eskolarenganako mesfidantza dela, bizitzari aurre e mateko indarririk eza dela, hau dena da beharrezko, zuek preso zaduz katen nagusi berberak zuen haurrak ere preso har ditzaten. Eskola kate berdinarean, hots, kapitalista gizartearen kate-maila besterik ez da.



Eskola arazoa batikbat giza-arazo eta politiko arazoa da: Zuen garaitzapen oro, giza nahiz politiko mailan, eskolaren aldeko garaitzapen da; eta galtzaile ateratzen zareten bakoitzean eskola askatuago baten lortzea urrunago gertatzen da. Guztion hondamen izanaren litzaketen faszismoak eskola arazoan atzerapen ikaragarria ekarriko leukiguke.

Kapitalismoaren jokabide tematsua eskola bizitzatik eta langile burrukatik urruntzera zuzendua dago. Guk bata bestea lotiak, ezin hestuagorik uztarturik direla, azaltzen saiatu gatzazkizue. Sinetsirik egon, hau dela ARAZO NAGUSIA, eta honen aldamenean kapitalismoak lehen mailako agertzen dituen beste zenbait arazo, metodoarena, idealarena eta abar, bigarren mailako direla, arazo nagusi honek behar duen erantzuna emateko bide direla eta haintzako zat behar direla hartu. Baina arazo nagusia bazter utzirik ez genuke deus egiterik, bidez kanpo genbiltzake. !

Ez da gure asmoa bitarteko hauen balioa eta garrantzia guti-estea. Baina helburuen harteko mailaketa bat ahalik garbien eduki tzeak, erdi bideko soluziorik onartu gabe, gure helburu nagusietara abia gaitezen lagunduko dauku eta bide erdian liluraturik gera ez gaitezen eztegarri ukanen dugu.

Eman dezagun orain zuen haurren bizi-indar eta askatasun gosse hau gordin gordinik oraindaimo zaindu eta aldeztu egin ahal egin duzuela; honerat heldu zaretela nahi ahal zenukete, zuek bere esaneko egin zaituzten nagusi berdinek, zuen haurren bizi-egarrira ito eta askatasun gosse hori ezabatzea!?

Edo-ta bide hauk urratu nahirik, zuen haurren nortasun bereziak aberasten eta miseria hauetarik aterako gaituen giza mota prestatzen ari direnei, zuen laguntza luzatu nahi diezue?

Garrantzi handiko problema bat jotzen dugu hemen, behar baino askoz guttiago gure artean aztertua. Kapitalismoa ez da kontent, haurra ekonomikoki eta moralki bere esanetara jartzeaz. Hontaz gain beste zerbaite ere gogoan eduki be-

harra du:jeneralki ikasleen bizi gosea erændituarren, bakar batzuk gerta daitezke presondegia honei ihes egiteko modukoak, hots, oztopo guziena gaineratik bere kabuz pentsatzeko eta besteei bide zuzena agertzeko gai izanen liratekeenak.

Arrisku hau egiazko dela ikusirik eta jende bihurrik sor ez dadin, eskoletan intelektual morrontzan hezi behar du jendea eta eskolaz kanpo ere bere aldeko diren hamaika elkarte eta lagundietan muturra sartuko du.

Eskolak ez dautzue laguntzen zeuron buruz gauzak pentsatzen eta zuen begiz gauzak ikusten. Hau honela izanik arriskugarri gertatuko zinakete. Gaztedakik nagusiak pentsatzen duen bezala pentsatzera behartzen zaituete. Kapitalista gizarteaz hezurretaraino kutsaturiko liburuez zuen pentsaera moldatzera behartzen zaituete. Formulak eten gabean isuriko dauzkizue ez noski zuen adimena aberasteko, emandako guztia hartzen ikas dezazuten eta zeuron barrerendik sentitzen duzutenari uko egin dezaiozuen. Dena emana eta amaitua datorkizue, zuek bete besterik ez duzue.

Eskolak ez dautzue ez zuen ekintzen jabe izaten irakatsiko, ez-eta zuen erabakiak elkarrekin hitz eginaz eta arrazoiak ikusiaz hartzeko prestatuko. Egun batez, adin gazteko irakasleek, guztiei dagozkien erabakietan parte hartuz, gizarte bat antolatzekeo gai direla egiazta ba-ledi, a zer ipurdikoa gure gizarte hustel honentzat!

Aginteak! Berak materialki eta intelektualki eskola, langileria bezalaxe menperatzen du eta zenbait eta beranduago ikasleei askatasuna eman hainbat seguruago da agintearen etorkizuna.

Behar bada, zein den lehen mailako zein bigarreneko edo zein den helburu eta zein hartarako ibili beharreko bidea agertu nahi dugulako, gogor samarra irudituko zaizue gure hizkera.

Zenbait hezitzaile ere ez da, guk eginiko planteamenduaz ados etorriko. Baina ez da batere harrigarri, berek ere hainbeste ur-

tez domatuak izan dira, klase kultur honen zerbitzari zintzo egite-raino eta egia borobilénak eta argitsuénak ukatzeraino. Zuei dago kizue, langile eta nekazarioi, egia hauk bere gordintasunera itzul-tzea.

Gu teknika berri bat erabiliaz, zenbateraino eskolak herria de-formatu egiten duen konturatzen hasiak gara eta nola behar ditugun metodo berriak oker hauk zuzentzeko erabili, sumatzen eta hobeki konprenitzen hasteko lehen pausoak ematen ere.

Egungo pedagogiaren abiabide nekez gertatzen da haurra bera. Haurra ez bait da ikusten neke bat bere gain hartzeko gai, ez-eta berez pentsatzeko heldua. Hortara pertsona helduak bere pentsaera bere gustoak eta bere bizikera gain-behera ezarri beharko dio. Eta zer eratako pertsona helduak? Bere pribilejioez harro den burgesak eta bere liburuez ideologizatze lana egin ahal duen industrial kutsuko diruzale porrokatuak.

Metodo hauen ondorioak aski ezagunak ditugu: lanerako gogorik eza, alferrikako neke eta izerdiak, eta bizi-gosearen orde z pasibitate beldurgarria. Pasibitate honen aurka eskola tradizionalak indarra besterik ez du aterako. Bestela nork mugi alfer jende hau? Zigorraren beldurrez nahiz sariaren eraginez jendea behartu egingen du, eztarriko zuloatik behera gauzak sartu. Batetik sartu bestetik ir-tetzeko.

Guk erabili nahi dugun pedagogia, honen aurkako gertatzen da. Gure maisu eta gizon helduon prejuizioak bazterrera utzi eta ikasleen mailan asentatzen saiatzen gara. Berekin batera pentsatzen ahalegintzen gara eta bere esku oso teknika interesgarri bat jartzen dugu: beren kezkek kanporatzen, beren nortasuna finkatzen eta bere pentsaera ezagutzen biziki laguntzen dien teknika hau INPRENTA dugu.

Haurrek librokiko gogoko zaien guztia idazten dute, eta ondoren inprentaz jarri.


Uste bagenuen haurrek interes handiena pertsona helduek kontaturi-ko gertaera bat entzuterakoan agertzen zutela, oker ginela kontura-

tu ginen. Bere barneko bizitzak irrikatzen du batez ere, eta ez da bere esperientziak nahiz asmakizunak kontatzeaz aspertzen!

Testo libre hauk, bere eskuetan inprenta material bat jarriz gero berek inprimatzen dituzte.

Honela, haurraren pentsaera bizia bere bizitzaren LIBURU bizi an trukatzen da. Behin eta berriro irakurri eta komentatuko duen Liburua, bere gurasoei azaldu eta hamaika irudiz hornituko duen liburu berezia. Ale bat baino gehiago egin eta bere urrutiko lankideei bidaliko dizkie haienak ordainez jasotzen dituelarik.

Haurren pentsaera reprimitu beharrean hedatu egiten da. Esan nahi dena; hitz zuzenean agertzen ikasiko du, lankideen pentsaeraz alderatuz aberastu eta zorroztu eginen da, eta dogmatismo hertsirik gabe bizitzak eskatzen duen heinean mugikor izanen da. Bide honetatik abiatuz kultura eraginkor eta bizi baten oinarriak jartzen dira.



Egungo eskolak eman uste duen kultura ren ganako gorrotoa sortzen duela gauza jakina da, dasta-erazi ez baina, inposatu egiten delako. Besterik gertatzen da haurrak errespetatzen direnean; orduan, bere jakin-mina eta interes bizia mila galdera eginaz ase nahi bait dituzte eta zirriztu guztiak arakatu gura lituzkete.

Pertsonei galderak egiteko egokiera onik ukan ez dezatenean, liburuei eta bere esku utziriko diren tresna guztiei galderak egin eta erantzunak jasoko dituzte. Honelako galderak behartuko dituzte bere kabuz lan egitera eta batetik ateratako erantzuna bestekotik jasotakoarekin konparatzera, hots, zentzu kritikoa lantzera.


Baina base honetatik abiatzeak, ohiezko eskola hipokrita ipurdiz gora botatzea eskatzen du. Haurrek ez daukute beti gogoko zai kuna, ez-eta araudiak markatzen duena beteko. Anarkiaren bultzadaz ez dela ari ohartzea aski daiteke, bere eskabideei laguntzeko.

Hurrek bere linea jarraitzen dute, bere interesen eta bere bizitzaren linea. Eta bizitzak beti goruntz markatzen du bidea, aberasgarri da eta lan eragin-garri. Bizitzak moral bizia du irakasten eta azkenik bizitza soil-soilik da hezitzaile.

Liburuek duten dogmatismoa eta zanpaketa piska bat gure heziketari so eginaz berehala agertzen dira. Eta edozein gai pasiboki asimilatzeko bizkor den ikaslea baino konformismo hutsaren aurka altxatzen dena hobe da. Haurren bizi-eraginari ondo-ondotik jarraitzen zaizkion gurasoak, haurren tolesgabetasunaz eta itxaropenaz harritu eta poztu egiten dira. Orduan, behar bada, "ekintza libre" deritzana-ren bultzadaz ohartuko gara.

Halaz guztiz ere, bizi berri honen base tinko hau eta askatasun gose hau deus ere ez lirateke geroko gizarte giroaren hersturetan i toko balira. Gizarte konformista bat bere prozesuan ez integratzeko moduko gizon bizkorak sortzeko zertan dugun geroa seguratu behar hurrengo batean azalduko dugu. Honela agertuko da, agian, garbiago eskola eta gizartearen arteko lotura.

Kepa Hernabide



# 13 ERDI MAILAKO IRAKASKINTZAREN KRISISIA

1.- GOI-MAILAN hasiriko kezka, maila guztietara zabaltzen ari da.


Heziketaren arazoa duela zenbait urte aireatzen hasia izanik ere, gaur egun biziki sentitzen da eta luzaro gabeko erantzuna eskatzen du.

Unibersitatetan, ikasleek egin duten protesta gogor eta tematari esker, lehen mailako arazo bilakatu da. Lehenik, talde politiko kaskar batzuen azpi-lanak sortua jotzen bazen ere, egun, heziketaren egiturek berek sorturiko ondo-ezaren ondorio bezala ikusten da.

Heziketaren egitura goitik-behera gaurkotu beharrean dela aginteak ere onartu du eta berrizte lanari ekin dio.

Ez da beraz, ikasle bihurrienak isil-eraziaz hauzia amaitu; eta astiro-astiro haien eskabideen arrazoi onak haintzakotzat hartu beharreko ikusten dira.

Egoera bonek bultzata hasia da arduraren ofiziala duen jendea, lege berri baten oinarriak finkatu asmoz, inkestak zabaltzen eta egoki diren datoak pilatzen. Zer ondorio dato hauen interpretaziotik jaso? Irakaskintzaren egoera benetan negargarri dela.



Halere, lege berri baten lehen urratsak ez du bakerik unibersitetara ekarri, berdintsu nahasiak bait dira egun ere aurkitzen.

Dato berri bat, oso interesgarri daitekeelako, aipatu nahi nuke eta bere esanahia ikasten ahalegindu:

GOI MAILAN HASIRIKO PROTESTA HAU GAIN-BEHERA DATORRELA, AURTEN ERDI-MAILAKO IRAKASKIN-

## TZAN ERE BERE ONDORIOAK NABARI DIRELA.

Erdi mailako irakasleek, lehen aldiz, penintsula mailan, hau dela-eta, dira bildu eta ofizialtasunarekin konpon-ezina ikusirik, puskatu beharrean aurkitu dira.

Bestalde, gogoan edukitzeko eta txalotzeko duguna zera da: erakunde ofizialek ez dutela inoiz hainbeste arduraz irakaskintzaren alorra jorratzeko gogorik agertu. Hau honela izanik, nondik dator bada jendearen deskontentua?

2.- Administrazioak, irakasleek eta ikasleek ez dute elkar ulertzen.

Egiazko elkarrizketa baten falta nabari da. Legeak laboratoriora etan egin ondoren, beheko jendearen eritzia eskatzea ez da gauzak elkarrekin moldatzea. Beraz, behe-mailako irakasleen nahiz ikasleen asmoez jabetzeke egin da lege hau eta hortik datorkio bere hutsunerik nabarbenena. Behar diren elkarbideak eta hitz-bideak zabaltzen eta errespetatzen ez diren artean, zinezko elkarrizketarik ez da egin ahal.

Eta heziketa eremuan ari direnak ikasle eta irakasle xeheak izanik, hauk dira batipat konsultatu beharko, zuzenki horretan ari ez diren burokratak baino areago. Konsulta hau ez zen legea lantzerakoan ia batere zabala eta sakona izan.

Baina legea onetsi zutenetik, kontsulta alde batera utzi eta deusetarako irakasleekin kontatzeke, ari dira puntuz puntu lege honen aplikazioa eskatzen.

Elkarrekin hitz egiteko posibilitateak ebakitzen direnean, administrazioa ez da baseko jendearen asmoez eta kritikez jabe ahal, ez dago elkar aditzerik.

Berrero ere heldu gara ohiezko protestara eta berau isil-erazteko represiora. Askotxo izan bait dira Madrid-en hatzemaniko irakasleak.

Goi-mailako jendeak behin baino gehiagotan agertu du bai, lege hauen kontrariorik gogorrenek ez dutela heziketa arrazoin sendorik; aitzitik, politiko hautamenak eraginik mugitu direla.

Baina bada ia garaia prejuiziok utzi eta basean lanean ari den jendearekin seriooki mintzatzeko. Hemendik abiatu ezik, ez bait da eguneroko esperientziak markatzen duten lur tinkoa jo, ez-eta egiaz irakasleei egoki zaizkien ikastaldiak antolatu.

3.- Arinegi emaniko aginduak ongi finkatu gabeak dira.

Badira hiru bederen, batere garbi ikusten ez diren arazoak.

- a. Delako E.G.B. hortarako eraikitako ikastetxeetan emanen da. Hauk, "Nazional ikastegi", hots, "Colegios nacionales" deitzen dira. Legea betetzen hasi beharra dago baina non hau egin ahal den, aipaturiko ikastetxeak eraikitzen ez diren artean, ez dago batere argi.
- b. Irakaskintza berri honen mamia zein izanen den eta orain arte bezala tekniko batzuen esku utziko denentz ikasi beharra dago.
- d. Nortzuk izanen dira irakaskintza hau emateko gai? Halako eta halako ikasketak eskatuko zaizkiela esaten ari zaizkigun garaietan, delako ikasketa hoik oraino antolatu gabeak direla ikus dezakegu. Hau dela-eta lizenziatu eta irakasleen artean burruka alferrikako bat sortu nahi ez bada, zenbait gauza garbiro ikasi beharra dago.

Gerora begira, irakasleek gorputz bat osatzea litzake egokien eta lan-berdina sari berdinez horniturik egotea zuzenen.

Honetarako jenderik prestatzen ez den artean oraintsu arte lizenziatuen esku egon diren ikasleak beroien esku jarraitzea bidezko ko dirudi. Honela zuten gauza ikusi lizentziatuek eginiko bilkuran eta baita ere irakaskintzaren arduradunei adierazi.

Bestela lizentziatuek lanik gabe geratuko lirake nahiz-eta gobernuak lana agindu.



Baina, gobernuak alferrik bestela pentsa, lan-tokirik ez bada, ez du te lanik egin izanen.

#### 4.- LEGE BERDINEN elkar-har ezina. Eta inspekzioaren efikaziarik-eza.

Irakaskintza ofizialaren-pean lanean ari den jendea, delako "Ministerio de Educaciòn y Ciencia"-ren legeetara makurtu behar du. Baina kontuan har dezagun erdi-mailako irakaskintzan erditik gora direla pribatu deritzaten ikastetxeak. Eta hauk ez daude lehenengoak bezala legeari dagokionez. "Ministerio de Trabajo"-ren gidaritzapean lanean ari bait dira.

Behin baino gehiagotan gertatzen den bikoiztasun hau dela-eta, irakaskintza ofizialak bere esaneko diren langileak soil-soilik gogoan edukirik, aginduak ematea eta erabakiak hartzea, eta agindu nahiz erabaki hauk besteen kaltetan, hots pribatuen kaltetan gertatzea.

Lege berriaren oinarritzko jomuga, heziketaren sakontzea da. Honetarako heziketa nortasunaren eta berezitasunaren neurrira ematea eskatzen du. Delako "Enseñanza personalizada e individualizada"-k hau adierazi nahi du. Hots, nortasunaren osagarri, pertsona beraren izaeran txertatua eta pertsona bakoitzari bereziki eta ez beste inori dagokiona. Oinarritzko baldintza hauk bete nahi dituztenek ez dute legeak seinalatzen dituen orduak beteaz bere lana inondik ere amaituko. Lana askoz ere zabalago gertatzen da eta hartara bete-betean dedikatzea eskatzen du.



Lana ugaritu egiten da eta nahi bada seriooki lan-era honi erantzun, bidezko da honela jokatzeko, ez dago ihes biderik. Baina lanean egun osoa ematea eskatzen zaionari, material edo diru eskaintza bat ere neurri berean egin behar zaio.

Irakasleek bere ofizioak eskatzen dauzkien neke guztiak bere bizkar hartu behar dituztela eta sakrifikatu egin behar dutela esatea ez da aski, langile orori bere saria zor zaiolarik ez dago lainoetan ibiltzerik.

Baldin-eta lege hau hitz hutsetan gera ez dadin nahi bada, gorago jo behar da; bestela nahiz-eta izen ezberdinak erabili, egoera lenengoa dateke.

### 5.- FUNTSEZKO SOLUZIOEN BILA...

- a. Eskola-sasoian diren haur guztiak eskolatzen ez diren artean ez dago heziketa arazoari erantzun jator bat ematerik. Honek bidenabar irakasle zenbaiten lan-gabezia amaituko luke.
- b. Egiazko elkarrizketa baten bidez behekoen asmo eta eritzia goi-mailetara hel ez badaitez, lege berrien taxutzea teknikoan esku utziko da eta ez da biziki sumatzen den problema bati erantzuna izanen.
- d. Irakasleen artean gorputz bakar bat osatu behar da, batasunerat abiatu behar da eta lan berdinari sari berdina erantsi behar zaio.



# 18 GURASOekin ELKARRIZKETAN

Haurrak hiru hezi-leku dituela (etxea, kalea, eskola) jabeturik egon arren, oso guttitan gure mugatik kanpo dantza egiten dugu. Mila bider gure bileretan aipatu izan dugu haurren zapalketa, aska tasun giro batean hezitzearen beharra eta metodo guztiak azterturik ere, ez zinekoa dela herriko giroa eta etxea eskolarekin lotzen ez baditugu.

Bai, oinak lurrean ditut eta badakit bihar berean lortu ez daitekeen zerbait ez dela, baina araka daitezkeen punttak araka ditza gun, lehenik, beldur gabe, eta ondorioak zer dakarkiguten ikusiaz, jehango gara bideak zuzentzen.

Planteamendu honek eraman gintuen Goiherrian, gurasoekiko - elkarrizketara. Horrela, eta gure lanarekin bat egiten johan zitezen hasi ginen herriz herri gure asmoen berri, zenbait andereño, gure asmoen berri agertuaz eta berek pentsatzen zutena bildu edo jaso nahirik. Puntu hauetan zetzan gure agerpena:

1. Lehengo garaiko eskolak zer eskaintzen zion haurrari.

2.-Zer da haurra oraingo giroak bultzatzen duen eskola batetan:

-gauzakiak, pertsonak, jokabideak edo gertakizunak juzgatzen.

-erabakiak hartzen.

-besteren ganako ardura hartzen.

-talde lana egiten

-kreatzen.

3.- Guzti hau lortzeko edo erdiesteko, zer bide darabilzkgun ikastolan.

Hamar herritan izan gara oraingoz, eta esan beharrik ez, eginak erakusten duela. Laster konturatu ginen herri oro planteamendu berdina ez dagoela egiterik edo, behinik behin, denetan ez dagoela ber

din mintzatzerik. Herri bakoitzak bere izate berezia du, edo bederen ukitu berezia, bi kilometroren alde bakarrik izanda ere batetik bestera. Ez dituzte gauza berdinak berdin aditzen, ez-eta hitz berdinak berdin hartzen.

Gero, guztietan ez dugu elkarrizketarik sortu ahal izan ere eta honetan, agian, teknika baten ikasi beharra dadukagu. Beren maila batean agertu behar dira gauzak, eta eskolari begira bakarrik ez-baina, baita etxeko girora joaz ere.

Gehienetan, ez ditugu gurasoak, entzule bakarrak izan; herriko gazte sail bat presentatu zaiku gure batzar hauetara. Eta kezka larri bat nabari zuen zenbaitek, eta batzuetan gertatu zaikun bezala, gogor eraso die gurasoei superazio bat eskatuaz.

Memento honetan, alferrikakoa izaten zen gure iharduna, beren artean erabakitzen bait zuten herrian zen egin beharra.

Esan bakarrik, uste baino erantzun hobea aurkitu dugula. Ez da orain arte zirudien bezain bide zaila, noski. Kezka bat nabari da eta ez den kasuetan edo ageri ez denetan, iduri du, sortu daitekeela ere; eta are, beren laguntzarik gabe gure lana alferrekoa dela adierazten bazaie, argiro ikus daiteke dagokien lanean bertan behera murgilduko diren itzaropidea.

## MARIXABEL

Oharra:

Goiherri mailako herriz herri gurasoekin ukan dugun har-eman hau aipatu baizik ez dugu egin hemen, eta gehienik ere, gain ikuspegi bat eman dugu. Hurrengo batetan zehazkiago emanen dautzuegu beste zenbait puntu interesgarriren berri.

# IKASTOLAN<sup>20</sup> LANEAN

Nire taldean 9 urteko haurrak dira. Sortu da problema ugari; eta eman ditugu soluzio batzuek; norbaitentzat probetxuko izango direlakoan idazten dut.

. Gaur arte neskek eta mutilak bi taldeetan ibili izan dira. Aurten asi gara denak batu eta elkarrekin lanean.

Aurtengo taldean badut neska talde bat beste irakasle batekin ibilia. Hare dela-eta arazo batzuk izan ditugu.

. Bi talde sortu ziren: bata mutilena eta bestea neskena. Biak enfrentatu ziren: "guk gehiago dakigu; ...gu zuek baino azkarrago ak gara; ...guk ez dugu mutillekin ibili nahi jolasean, etab... Honela egun batzuetan, batak besteari gogor hitzegiten. Nola konpondu?



. Egunoro egiten dugu gure konportamenduaren agerpena eta kritika. Egun batzuetan oso zarata haundiarekin; batez ere lehenen go egunetan; elkarri gogor erasoaz; batak besteari erruak ematen - etab.

Egun batean bi neskek agertu zuten nola egun hartan mutillekin ibili zaren jostatzen; orduan, neska eta mutil hauk saritu egin behar zirela erabaki genuen; eta horrela egin genuen.

Egun horretatik ez dugu problemarik izan neska eta mutilen artean; elkarrekin jostatzen dira; ikastolan elkarri laguntzen diote esku lanetan. Oraindik ere badira ezberdintasun edo diferentziak; baina ttikiagoak dira. Eta nola heldu garen elkar-hizketa edo kri-

tika egitera , han azaltzen dira batzuen eta besteen gauza onak eta txarrak; eta ahalegintzen gara zuzentzen .

### BARNEKO ORGANIZAZIOA:

Irakaslea gauza eta pertsona guztien jaun eta jabe izan ez dadin, haurrak ikastolako bizitzan eskubide eta parte har dezaten, era hone tako planteamenduak egin ditugu aurtengo kursorako .


Haurrek beren artean hautatu dute lendakari bat; gero idazkari edo sekretario bat; eta hiru edo lau laguntzaile . Hauek denak, has- teko behintzat, hilabeterako .

Gero reglamentu bat jarri behar genuela eta honela egin genu en:

1. Orduan atera eta orduan sartu
2. Neskak eta mutilak ongi konpontzea .
3. Ikastola garbitzea .
4. Norbaitek hitzegiten duenean, besteak isilik egotea .

Honela hamar puntu; hau, batez ere, azaltzeko haurra ez diteke ela ongi hazi liberaltasun faltso batean . Gizartearen alde burrukan jarri nahi bada, arau eta programa bat behar beharrezkoak dira . Horiek oinarritzat harturik, egiten dugu gure artean eta munduan gertatzen diren berrien kritika eta geuk zerbaitetan errua izan ba- dugu, azaldu eta zuzentzeko neurriak hartu .

Hau berdin da haurrekin , irakasleekin eta beste maila guztie- kin .



# UGAZTUNAK IKASTEKO MATERIALA

Gure bigarren lantxo honetan, ugaztunak ikasteko materiala nola lortu ikustera goaz. Aztertuko dugu, material hau nola bildu, nola gorde eta nola erabili ta ikasi.

## 1.- NOLA BILDU

Kontuan edukiko ditugu, alde batetik, animalia basatiak eta bestetik etxekoiak. Baita ere animalia osoak eta berauen gorputz-atalak.




### ANIMALIA BASATIAK.-

Seguru aski, eskuratzen ditugun animalia basati gehienak, bila joan gabe zazkigu etorriko, batez ere herri ttiketako ikastoletan. Harrapatzera joanez gero, berriz, zepoen bitartez hartu beharko ditugu. Honela bada, behar beharrezkoa da haurrak hau ulertzea: alegia, ikastera goazelako eta inoiz bakarrik egin dezakegula, hau da, beharrik gabe ez dela bat ere bizidunik hil behar. Eta hori zergatik! Bizidun orok bere egin beharra betetzen duelako izadian, eta animalia sail bat galduko balitz, ekologiaren ekilibrioa hautsiko litzakeelako.

Zepoekin, gehienik, karraskariak harrapatzen dira eta hauekin edozein ugaztunen berezitasunak ongi ikas daitezke. Gainera, mota honetako animaliak badira hainitz eta batzuek hiltzeak ez du inoiz prole marik sortuko, izadiaren ekilibrioan alegia.

Zepoak, hiru mota hauetakoak erabili daitezke:

23





Hauekin arrapatu ditzakegu:

Saturdin, ratón de campo, género apodemus.

Sagu, ratón casero, género mus.

Satain, topillo, género Pytimis.

Satitsu, musaraña, género Sorex, Crocidura.

Zepoetarako janaririk egokiena, ogi frijitua izaten da, usain handia duelako. Leku berezi batzuetan jartzea hobe izaten da: erreka ertzetan, sator zuloetan eta abar. Bakoitzeko berrogeitamar bat zepo guti gora-behera, metrotik metrora.

Arratsean jarri eta goizean bildu behar dira. Gaulariak dira animalia hauk eta aski goiz jasotzen ez ba dira berriz, husteldu edo besteren batek eraman litzake. Bestalde, jarri ondoren euria egiten ba du ez dira, segur asko eroriko.

Beste animalia basatirik harrapatzea ez zaiku erraz izango, bai na bila joan gabe baditeke beste norbaitek eskuratzea, esate batera ko, ihiztarien bitartez edo haurrak mendian bilatu dutelako edo norbaitek berebilez harrapatu eta abar.

Batez ere, gurasoen artean zabaltzen badugu, edozein material ongi datorkigula, askotan behar baino gehiago izango dugu.

Gure eskuetara datorkigun guztia erabil daiteke, orduntxe be-rean ez bada, geroago. Horregatik, materiala nola gorde jakiteak ere, garrantzi handia du.

Inoiz, gainera, animalia biziak ere ekartzen baleuzkigute, are eta hobe.

### ANIMALIA ETXEKOIAK:-

Etxekoia direnean, berriz, askoz ere errazago da. Hurrek be-

rek ekarri ohi dituzte eta bizirik denbora luzean iraun eraztea ere errazago da.

### GORPUTZ-ATALAK:

Batzuetan, nahiz animalia osoak ez izan, zenbait zati ere interesgarri zaiku. Esate baterako, gorputzeko zatiak xehetasunez ikasten ari bagara, bakoitzean animalia oso bat harrapatu eta ireki beharrean, zatiak izatea komeniko zaiku. Bereiz ditzakegu alde batetik hezurak eta bestetik organo bigunak.

#### a. HEZURRAK.

Mendian bilatzen errazenak dira, askotan ez hezurtza osoa baina, bai zati batzuk. Osorik ikusi dugun edozein animalia ere gorde dezakegu. Gero ikusiko dugu nola garbitu.

Beti ere interesgarriena kaskezur edo garazurra gordetzea da. Ugaztun asko sailkatzen dira hortzeri buruz, eta gainera, hortzen bitartez jakin dezakegu bere elikadura.

Animalia batzuen hezurtza osorik gordetzea ere interesgarri izaten da; gizonarena ere beste edozein ugaztunaren antzekoa delako.

#### b. ORGANO BIGUNAK:

Organo bigunak, berriz, harategian edo merkatuan saltzen dituzte. (Arkume edo xerri birika, gibela, bihotzak, muinak, eta abar.) Giltzurriak, xerriarenak izaten dira onenak, haiek dute gizonarekin antzik handiena eta oso garbi ikus daitezke zati guztiak. Zati hauk, gainera, oso merke saltzen dituzte.

## 2.- NOLA GORDE

Animaliak nola gorde jakiteak garrantzi handia du. Askotan materiala biltzen zaiku baina nola gorde ez dakigulako bota egin behar izaten dugu, hustelduko den beldurrez. Animalia osoak direnean honela egin dezakegu:

- Disekatuaz: Era hau garestia da eta animalia harrigarriak direnean bakarrik egin ahal izango dugu. Hala ere, inoiz egin behar izanez gero, ahoa ongi irekita disekatzea komeni da, hortzak ongi ikus ditezten, honela jakingo bait dugu askotan zein taldekoa den.

- Alkoholetan: hau botiketan saltzen dute baina %90koa izaten da eta bortitzegia da. Onena % 70 -% 75 koa izaten da eta lehenengoari ura botata presta daiteke. Ongi hersten diren potoak behar dira (mermelada, mbhonesa eta abar); alkohola erraz lurrintzen delako. Gainera sabela pixka bat irekiaz, barrua hustel ez dadin. Hau ere, aski garestia da (%90 ko litro bat alkoholek 50 pta. baliotua du).

- Formoletan: Drogerietan saltzen dute (%5-koa). Alkoholarekin bezala hersten diren potoak behar dira eta animalien sabela ireki. Hau da merkeena, baina usain txarra du eta malkoak atera erazten ditu.

Bizirik direnean, berriz, karioletan gorde daitezke, eta hurrekin jaten eman eta kaiola garbi diezaietela; honela gauza asko ikas ditzazkete. Hobe litzake leku handi batean gorde ahal izatea, baratzetxe batean edo.

Gorputz zatiak direnean, hezurak edo organo bigunak izan daitezke:

- Hezurak: Hezur garbiak bilatzen baditugu edo ekartzen badauzkigute, ordu pare batean ur-lejiatan eduki ondoren, zepilu edo laban batekin pixka bat garbitzea aski izaten da. Ondoren, ahal dela behintzat, eguzkitan lehortzera emanaz, xuri xuri gelditzen dira.

Hezurak haragiz inguraturik badaude berriz, ordu bat edo bi egosi behar izaten dira. Hurrena goraize edo labanarekin haragia erabat kendu; ondoren, lehenago bezala ur-lejiatan sartu eta eguzkitan lehortzen jarri xuritzeko.

Hezurtza osorik dagonean, beharrezkoa izaten da, zatietan egostea eta garbitzea, gero hezurak nahasi ez daitezten. Esate baterako, lehenik hanka bat egosi, garbitu eta ontzi batean jarri lejiatan. Beste zatietan ere berdin, eta gainera ontziak zenbakiz-edo bereizi. Behatzeko eta eskumuturreko hezurak oso txikiak dira eta gero ez gutzen oso zaila izan daiteke. Gordetzeko garaian ere kontu handiarekin ibili behar da ez nahasteko. Gorde daitezke zati bakoitza

kaxa kaxkorretan, edo kartulina batean, gorputzean dauden antzerara eratsirik edo...


- Zati bigunak: Animalia osoak bezala alkoholetan edo formoletan gorde daitezke. Hauk, gehienetan, eskyra-errazak dira eta hobe izaten da hil berritan ikustea, formol edo alkoholetan gorde ondoren baino, gehienetan margoa galtzen bait dute.

### 3.- NOLA IKASI

Piska bat aztertuko dugu animaliak barnetik nola ikas daitezkeen. Oso interesgarria da haurrek ikusten dutena, idatziz adierazten ohitzea, hau da, deskripzioak egiten ikastea.

Barnetik ikasteko, kortxozko lauki baten gainean edo plastikozko ontzi zabal batean jarri daitezke.

Buruz gora hankak ongi irekiaz eta alde banatan orratz batzuekin finkaturik.



Ondoren ipurzulo inguruan, pintzekin atximurka bat harrapatu eta guraitzeekin moztu. Honela, egin den zulozotik marrazkian adierazten den bezala ebaki. Azal eta giharrak moztu ditugu honela, orduan gaintetik kendu eta alde banatan orratzekin josi.

Disekzioen eskema onak eta garbiak liburu askotan datoz eta bukaeran emango dugu zerendatxo bat.

Irekiko ditugun animaliak gehienetan ttikiak izango dira (saguak eta abar) eta hoietan organo asko ez dira garbi ikusten. Xehetasun gehiagorekin ikus ditzakegu, lehenago esan bezala, harategitan saltzen dituzten zatietan (gibela, birika, bihotza, giltzurriak).

Ikusten denez, tresna handirik ez da behar gauza hauk denak i

kasteko, (pintzak, guraizak, orratzak) eta dudarik ez dago, haurrak ikusi, ukitu eta erabiltzen ez dituzten bitartean, ia alferrik ari garelako, erakutsi nahirik. Askori, gauzak honela irakurririk eta inoiz egin ez baditu, baliteke zaila iruditzea, baina ez du batere zailtasunik eta nahiz ez behin ere holakorik egin, aski ongi atera liteke.

### LIBURUAK

- Guide des mammifères sauvages de l'Europe occidentale. F.H. Van Deb Brink eta P. Barruel. Ed. Delachaux et Niestlé. Suiza.

Liburu honetan agertzen dira Europako ugaztun gehienak, bakoitza bere marrazkiarekin, erraz ezagutu ahal izateko. Omega editorialean erderaturik dago. (500 pta. inguru).

- Atlas de Anatomía Animal. J. Steyaert. Ed. Jover.

Hemen agertzen dira animalia sail handi guztiak hezurdu eta e-zurgabeak, disezioen eskema garbiekin. (150 pta. inguru)

- Natura, Ciencias Naturales, 1º de Bachiller. Ed. Teide.

- Natura, Ciencias Naturales, 2º de Bachiller. Ed. Teide.

Bi hauk dira batxilererako honenak, eta gauza askotarako ongi etorri ditezke. 120 pta. inguru balio du bakoitzak.

### IRUINEKO

# Bertsolatitzan

Mattin bertsolariaren omenaldia iragan ondoren, nere gelako hurrekin egindako saiotxo baten berri eman nahi nuke, laburki berderen, interesgarria daitekeelakoan.

Omenaldi horren biharamonean haurrak ikastolara etorri eta hortaz mintzatzen ziren. Bertso giroa sortu zen; bertso famatu batzuk abestu genituen eta zenbait bertsolariren izenak eta gertaerak ere aipatu ziren. Haur bakoitza bertsolari baten izena hartzen hasi zen, berek ere gustora abestuko zutela adieraziaz, baina ez zekitela nola. Ikusi genduen banaka-banaka ez genduela gauza handirik egiten, baina denok baturik, agian, zerbait sortuko zela.

Hasteko, denon artean gaia hautatu zen: "xoria" hartu genduen gai bezala. Gero, esaldi bat eman eta bukaerak rimatzen hasi ginen, besterik gabe. Lehenbiziko esaldia hauxe zen:

-Enaren adiskide izan gaitezen...

Haur bakoitzak gai hortaz esaldi bat esan behar zuen. Izugarriko erraztasunez hasi ziren esaldiak ateratzen. Azkenik, esaldi hauk idatzi eta ordenatzen hasi ginen. Eta hauxe da denon artean asmatutakoa:

Enaren adiskide izan gaitezen  
 Hitzik ez dute esaten  
 Baina denek dute abesten  
 Azkarrak dira habia egiten  
 Arraultzak ere dituzte jartzen  
 Amak habian arraultzak berotzen  
 Hauetarik xorikumeak dira ateratzen  
 Beren aita-amak hegan erakusten  
 Baita ere janaria bilatzen  
 Eta ederki dituzte zaintzen  
 Gero, neguan, beste lekura joaten  
 Udaberrian beren habia topatzen



Azkarrak dira  
 HABA EGITEN

Udaran eguzki ondoan jostatzen  
Mutil batzuek arraultzak puskatzen  
Ihiztariak xoriak harrapatzen  
Bainan hala ere ez dira bukatzen  
xorikumeak hazi eta berriak sortzen  
Eta orain olerki hau da amaitzen.

"Olerki" hau ez zen hasieratik horrela atera: konponketa eta orrazketa batzuk eman beharrean aurkitu ginen. Hasieran "xorien adiskide izan gaitezen" jarria genduen; baina emandako esaldiekin "enara" hobe zetorrela ikusirik, aldatu egin genduen.

Azken esaldia, hasieran, honela eman zuten: "Eta orain ipuin hau da bukatzen". "Bukatzen" hitza gorago eman zen: aldatu eta "amaitzen" jarri genduen. zuten.



HAUTARIK TXORIKU-  
MEAK DIRA ATERATZEN

Bukatu ondoren marrazkiak egitea pentsatu zen olerkia apaintzeko. Haur bakoitzak esaldi bat hartu zuen, hari buruz marrazkia egiteko: bakoitzak nahi zuena eta esaldi denak hartzen zirela, noski. Esaldi batzuk bi edo hiru haurrek egin zituzten eta gero denon artean hautatu

zen bi edo hiru marrazki horietarik zein onartu.


Orri bakoitzean marrazki bat eta zegokion esaldia ipini genituen. Hautatu gabeko marrazkiak egin zituztenek olerkia idatzi zuten. Gero, kartulinetan ipini eta gelako horman jarri.

Hontaraz gero, bere olerkia abestu nahi zuten haurrek. Abestu ezin zela ikusi zutenean, beste egun batean abesteko bertso bat egin nahi zutela adierazi zuten. Horrela denbora piska bat iraganik,



berriro ere nahi hori berbera adierazi zuten. Abesteko atahitzak edo silabak gogoan edukitu behar zirela eta binaka binaka rimatu behar zutela ikusi ondoren, gaia zen hautatu: "xakurra".

Musika, berriz, "Mutil koskor bat" abesti ezagunarena hautatu zen.

Esaldiak eman aurretik silabak ondo neurtzeko eskatu nien. Eta hau da, beraz, denon artean aterata zena:



### ETA EDERKI DITUZTE ZAITZEN



Gero nequan  
beste lekura joaten

Xakur polit bat ikusi nuen  
Kale ertzean loturik,  
Hainbeste pena eman zidan ta  
etxera eraman nuen nik,  
Xakur ttikia goserik zego  
ta nik ez nuen janarik,  
Lasterka dendara joan nintzen  
esnea ekartzeatik,  
Esne hura edan zurrut zurrut  
eta nerekin zen pozik.

Ikastolako gela guztietara  
joan ziren bertsoa abestera.

Hain pozik ziren! Ondo jabetu ziren bertsoa aterako bazuten, elkarri lagundu behar ziotela.

8-9 urteko haurrak

AGURTZANE MUXIKA



# Espezializatze bidean

Gure ikastolak, sortu zenetik, eman du zenbait pauso, baina gaur egun, beste asko eman beharra daduka.

Behar hau ikusirik, puntu bat edo beste nahastu nahi ditugu. Nahiz-eta denok buruan erabili, berriro aipatzeak kalterik izanen ez duelakoan.

Ikastolako irakasleez, entzun izan dugu zenbait iritzi: Titulodunak ez direla behar, ikusirik zer heziketa ematen duten ikas-tetxe ofizialetan, eta abar.

Badakigu ongi asko zer ikastetxe dauzkagun eta baita ere zer formazio ematen daukuten, baina gure ustez, ikastetxe hoietara joan beharra dadukagu. Ikastetxe hoietan ikasten ditugun gai batzuek behintzat balio daukute eta gainera behar handikoa dugu tituloa.

Zertarako titulo hori?

Lehenengo behintzat legeak eskatzen daukulako; bestenaz, nola onartuko dauzkigute gure ikastolak, berek eskatzen duten bezala titulorik ez badago?

Tituloarekin ere aski oztopo aurkitzen dugu eta zer izango ote litzake titulorik gabe?

Guk ikusten dugun bigarren beharra hau da:

Ikastolari jarraipena emateko, zientzia eta beste gaietan prestaturiko jendea behar dugu; uste dugu ikastetxe hoietan, alde horretatik presta gintezkeela, eta hori ez probetxatzea astakeria latza izanen litzake.

Bai, oso gauza polita da esatea bakoitzak bere kontura hobetogo presta litekeela eta askoz ere burges influentzia guttiago izanen lukeela.

Hori esatea oso erraza da, baina metodo hori jarraitzeko oso gutti prestaturik gaude. Oso erraza bait da asmo hori hartzea, ez hain erraza jarraitzea.

Burges influentzia hartzeaz berriz, uste dugu gaur bizi garen leku guztietan har genezakeela influentzia hori, ez bakarrik ikastetxeetan. Horren adibide asko dago denok dakigun bezala: gauza batzuei burgeskeria deitu eta beste batzuetan ederki hanka sartu berari komeni zaiolako.

Garbi ikuste da, lehen esan dugun bezala, jende prestatuaren beharra, jende espezializatuarena, zientziako adar bakoitzean eta beste gai guztietan, ikastolaren jarraipenari begiraturik.

Eta zer esan genezake gaurko andereñoen?

Hauei begira ere ikusten da organizazio falta latza. Hauek ez ote dute espezializatu behar ezertan?

Herri askotara begiraturik gero, gauza hauk ikusten dugu: Andereñoak hor dabiliz lan askotan sarturik, herrian diren arazo guztietan, (batzuek behintzat, besteak hortan ere ez), eta azkenerako leporaino nazkaturik gelditzen dira, hitz batean esanda: erreta.

Hoiek ez ote dadukate (nolabait esateko) espezializatu beharrik?

Gure ustez hoiek ere lan bat unilateralki hartu beharra dadukate, beti amateurgintza batean nahi ez badute gelditu.

Norbaitek esan lezake, andereñoek formazio jeneral baten beharrean daudela eta lehenengo behar dela hori lortu. Horrekin ados gaude, baina ikusten dugunez beti gauza berdinarekin gabiliz eta behinere lortzen ez denarekin.

Ordua badela uste dugu beti lelo berdinarekin jarraitu gabe, batzuek behintzat honetaz ohartzea.

Beste gauza batzuetaz ere esan liteke hitz frango, baina beste baterako ere zerbait beharko dugulakoan uzten dugu.

TALDEKOEK

# 34 Gure egoera Zertan den

Aurreko aldizkarietan, zerbait berri emanik da herri honen egoeraz; baina ez dugu uste egungo gertakizun xeheak jakinda bakarrik gure egoeraz behar bezala jabetu litekeenik. Aurreko prozesu guztiak zer-ikusi handia duela deritzaigu eta horren baitan dago, bistan da, oraingo gertakizunen esplikazioa.

Goiherrian lehendabizikoetako ikastola izan zen Ormaiztegi-koa; beste herri askotan bezala, sortzez helburu bakarrarekin: hizkuntza salbatzearen, noski. Herriko jauntxo batzuk izan ziren hasiera eman ziotenak, eta nahiz batzorde bat osatu, praktikan jauntxo hau en esku erabaki guztiak gertatzen ziren. Egoera honek, garbiro dago, ondorio bi dakartzi:

- . Ikastola, bakar batzuen eskuetan gelditzea.
- . Gaineratiko guraso eta batzordekoak zegoekien eginkizun eta erresponsabilitateaz ez jabetzea.

Bigarren puntu honi begira, batipat, aurkitzen dugu egungo egoeraren akatsik handiena. Orain arte, ez dugu oztoporik izan: pedagogia eta metodologiari buruz egin ditugun azalpen guztiak onartuak izan dira; izan ere, denentzat euskaraz irakasten den ikastola polit bat izan da, besterik gabe, sortzean nahi zena guti gorabehera.



Ikastolak, ordea, eboluzio garbi baten barruan johan dira sortu zirenez geroz: helburu garbitze bat egin eta honi dagokion bilaketa pedagogia eta metodologia sailetan. Egin den piska, esan dezagun, ez dugula inork emana, geurok johan gara baizik egunez egun bide berriak urratzen.

Bestalde, gurasoen aldetik behinik behin, prozesu hau ikusi ez duen ikastola bat da, eta lehenari atxikiaz irau duena, non-eta e-

saten ez dugun bakar batzuek beren interesen estalgarri erabili duten ikastola dela.

Orain, jakina, benetako erantzuna emateko garaia heldu denean, sortu den iskanbila dela medio, ongi nabari da nondik nora dabilten ez dakitela guraso gehienek: ez kriterio, ez-eta norabide aurkiten dira. Are, esango genuke: maneiatuak direla, aitzakiatzat beti bezala erlijioa ateratzen delarik.

Eta puntu honetan azaltzen zen ezinegona dela-eta ez ziren ados ikastolan egiten genuenarekin, nahiz-eta arazoa zertan datzan konprenitu ere ez, eta makurrago dena, jakiten ahalegindu ere.

Dena dela, susmo txarrik asko bazela, eta herriko apaizak etorrizi tzaizkigun egun batez ikastolara gurasoen izenean, esanaz: berek eramanen zutela erlijio gaietan ikastolaren kontrola. Horrela, bada, astean hirutan ematen da harrez gero Kristau-Ikasbidea gure ikastolan. Apaiza etortzen da dotrina ematera.

Ez da hemen bukatzen dena guztia. Orain arte metodo eta pedagogiari buruz inoiz sartu ez badira ere gurekin, horretaz ere mintzatzen hasiak dira azken-aldi honetan. Geurok entzunik dugu honako disparate gaitz hau: alegia, pedagogiari dadukan baino inportantzia gehiago ematen diogula, eta liburu asko irakurri edo aztertu arren, ez omen du esan nahi horrek pedagogiarik dakigunik edo bide zuzenetik gohazetik, eta gurasoak andereñoak hainbat bai omen gai honetan. Zer erantzun horrelakoari?

Andereñoak ez dugu batzordeko erabakietan parte hartzeko eskubiderik, entzule soil baizik ez gara.

Orain arteko gora-behera hauk herri mailan gertatuak dira, baina Goiherri bailarako herri bat denez gero, lokera badu beste herri batzuekin bailara mailan. Honetan ere ez dira ados beste herriekin: susmo txarrik bada nonbait hemen hauetaz ere, eta arazo horregatik aspalditxoan bailaratik urrun dabil gure herriko guraso jendea.

Baina horra, Lege Berria dela-eta, komarkalizazio delako horri

buruz erabaki bat hartu beharrean ziren. Normala zen, beraz, bailarako herri oro bezala eta haiekin batera Beasaina biltzea: hurbilago eta gastu gutiago gurasoentzat, hain poliki ari den Lizeo bat eta dinamikarik asko baduen guraso-batzordea edukirik bailaran. Baina bai zera!

Arrazoin izpirik gabeko susmoak erein dituzte bala-bala herrian, giro txar bat sortzea lortu dute guraso artean eta bada geroztik beldurra eta zalantza frango. Zer nahiago dute bakar hoiek, jendeak azkenik Urretxuara jo dezan? Noski, denen iritziarekin kontaturik eta gain gainetik demokrazia osoz jokutzen diren itxurak behar dira egin horretarako. Ez bakarrik herrian. Behin da berriro ibiliak dira Beasain aldean, eztabaidarik asko sortuaz. Bestalde, berebat, Urretxuan ere. Badirudi hau erlijiotasun gehiago eta garbiagoko ikastegia dela haurren hezitzeko.

Nolanahi ere, gurasoen baitan da orain erabakitzea.

Guk, iritzi mailan mintzatu behar bagenu, hots, iritzia eman beharrean gertatuko bagina, haxe esango genuke lehenik: sobera ilun ikusten dugula ikastola honen jarraipena. Gurasoak hainbat pena ematen daukutela haurrak, zeren-eta gisa horretako gora-beheretan hauek nozitzen bait dute gehienbat.

Eta apur bat herstutuz gero, beste zertxobait ere esango genuke: inola ere ez dugula onartzen jauntxokeriarik, baina are gutiago erlijioaren itxuraz jantzirik datorren jauntxokeria.



# Joannes Etxeberri Eskola

Seguru aski askok ez duzue izanen talde honen berririk. Horre gatik gure idazti honen helburua honako hau duzue: Joannes Etxeberri eskola zer den, nola sortu zen, nork osatzen duen, zer helburu duen e.a. adieraztea.

Ikastoletarako gabiltzan zenbait "Magisterio-ko ikaslek osatzen dugu batez ere. Guztira berrogei eta hamarren bat gaituzue.

Eskola hau ez da orain sorturiko gauza bat, orain dela zazpiren bat urte hasitakoa baizik, ikastoletarako asmoz zebilen zenbait jende, Hizkuntza, Historia, Pedagogia eta abarretan prestatzeko asmoz.

Nahiz-eta eskola hau lehendik izan, egun, gorputz gehiago hartu du, Magisterio-n ikastolarako asmoz den jendea asko gehitu bait da.

Bestalde, Magisterio ikasten ari garen bitartean ikasketa hauk egitearen arrazoina hau litzake: Batetik, Magisterion urte bi igaro ondoan, beste urte bat "Prácticas" egiten pasa beharra (hau horrela dela urte bat gehiago beharko genduen ikastoleta ko mailara heltzeko).

Bestetik, Magisterio-ko hiru urte hauk oso arinak direla ikusirik, (zerbait balio badute) beste ikasketa sakonago batzuk osagarri bezala egitea litzake gure asmoa.

Joan zen urtean hasi ginen gisa honetan; zenbait ikasketa ere egin genduen: Aditza, Literatura, Historia, e.a. Aste Santuan beste ikastalditxo bat ere bai honako helburu hauekin:

Elkar ezagutu  
Ikastolako egoeraren berri jakin  
Teknika apur batzuk ezagutu e.a.

Udan, euskal lurralde batzuk ezagutuaz ibilalditxo bat egin zen hurrengo urterako programa bat osatzearen. Nahiz-eta ibilaldi hau

behar bezalakoa ez izan, atera genduen esperientzia ederrik.

Aurtengo ikasketaren hasieran galdekizun batzuen bidez eskola hau osatzen duen jendearen zenbait eritzi jaso dugu; hauetan oinarriturik egin da aurtengo programa. Programa hau hiru zatitan moldatu dugu:

Lehenengo trimestrea:

Gure herriaren ezagupidea.-

- 1.- Hizkuntza
2. Euskal Herriko Historia, Literatura, Artea e.a.

Irakasleak: X. Garmendia, Federiko Zabala, (Euskal Herriko Historigilea), Ibon Sarasola, Lete, Lertxundi, J. Oteiza, Joan Mari Lekuona e.a.

Bigarren trimestrea:

Haurra eta inguruaren ezagupidea.-

- 1.- Haurraren izaera: Laboa, Arozena eta Goia, psikologoak; eta ikastoletan lanean ari diren batzuek.
- 2.- Ingurua: Lasa psikiatra, Agirre soziologoa, Arsuaga soziologoa, e.a.
- 3.- Bilingüismoa: Haranburu, Intxausti, Santamaria, e.a.

Hirugarren trimestrea:

Didaktika arazoak eta praktika.-

- 1.- Espresioko bideak: olerki, kantu, ipuin, ginola, teatroa, dantza, ..
- 2.- Matematika berria. (Ikastolako irakasleek emanik)
- 3.- Hizkuntzaren didaktika " " "

Irakasle:

1. Ez dok amairu, Oiartzungo "Lartaun" teatro taldea, ginol taldea eta ikastoletako irakasle batzuek.

Gai hauetan agertzen denez, gure asmoa eta xedea: herria errealitate guztian ezagutzea da, bestako haurrek herriari erantzun bat emateko gisaz hezitzearren.

Joan zen urtean bezala, aurten ere Aste Santuan ikastaldi bat egitea pentsaturik dugu; honetarako, aurrez galdekizun batzuek burutu ditugu ikastolaren gaurko egoera zehatz ezagutu nahirik. Galdekizun hauen erantzuna zuen aldetik objetiboa bada, objetiboa izanen da baita ere ikastolarekiko gure ikuspegia. Erantzun hauetan oinarriturik bait dago gure ikastaldiko zati garrantzitsu bat.

Zuengana hel daiteken zenbait ikasleri behar bezala erantzun beraz, beharrezkoa bait deritzaigu, egun, ikastolak dituen bere barneko zenbait arazoez ohartzea, gero erantzun bat ematea nahi badugu.

Ikastaro hau aurrera eramateko, dirua, konturatuko zaretenez, beharrezkoa dugu, irakasleek, lokala, e. a. ordaintzeko, ikasle bakoitzak ordaintzen duenez gainera.

Santa Ageda bezperan Donostiako kaleetan zehar kantari ibiltzeak hau zuen bere arrazoina. Hala ere, ez dugu behar guztiak ordaintzerik izan.

Gure ikastaroa aurrera eraman ahal izateko beste bide batzuk urratu beharrean aurkitzen gara. Erantzun, beraz, zenezaketen mailan.

IKASLEEK



# 40 DIN.. DAN... BOLEERAN

1. Ikastaldi laburrak.- Martxoaren 25-26 (larunbata-igande eguerdira arte) emanen den kursillo bat bi sailetan antolatzen ari gara. Bi sailetan eta bi gai: "Sikomotrizitatea", ttipien mailan; eta "Mintzaira", Oinarrizko Heziketaren arabera, Pepa Odenak eta Marta Matak xuxendurik. Non izango den eta beste xehetasun berri emango dautzuegu garaiz.

2. Gurasoen Batzar nagusia.- Johan den otsailaren 20.an, igandez, Federazio delako gurasoen batzar nagusia izan zen Loiolan. Sokatira ez da oraingoa: Irakasle Elkartearen eta Federazioaren artekoa, alegia; ez-eta zenbait herri eta Federazioaren artekoa ere. Orain, azkenik, bailarak hasi dira sokatiran, eta tira ezik, utzi ere egin diote batzuek sokari. Adibidez, Goiherri bailarak, Ormaiztegi salbu, osoki; eta Arrasate bailararen hutsunea ere ez omen zen baitez padakoa. Zer konponketa ote orain?

3. Liburutegi biak.- Halere, noizbait bederen, geurõn begiz ikusi siak eta eskuz ukituak ditugu, Ikastola-Liburutegia deituko den saila hornitzeko argitara eman diren lehen-liburuxkak. Aipaturik dugu orain baino lehen, ikastolako haurrentzat ikas-liburu edo irakurgai izateko liburutegia dela lehendabiziko hau. Baina beste sail bat ere hasia da matxan: Irakasle-Liburutegia deitzen dena, eta hau, deiturak berak dionez, irakasleontzat izango da. Ongi etorriak biak ere!!

4. Arte-Eskola.- Gure arteko askok jakin ere ez daki, seguru aski, antze-eskola edo, berdin dena, arte-eskola bat berezia dagoenik. Plastikari buruz (eskulan, margo...) muntaturik den eskola honek Debaiko herrian du bere egoitza, eta haste-hastetik dadukagu bere zerbitzuak prestutasunez eskaintzen. Aste Sanduko oporraldietarako aste bat osoko ikastaldia du antolatu. Lerro hauk ez dira, a-labaina, jendea multzoan harturik hara eramateko deia hain xuxen. Hori horrela izanik ere, bakarren batek edo bestek, kursillo hau

41

benetan interesgarri zaiola-eta johan nahi balu, aski du Gordailu-  
ra telefonatzea.

BERRIKETARI

72-III-4an



NON - ZER

Apurrak . . . . .	1
Aintzin solasa . . . . .	2
Gurasoei heziketaz . . . . .	4
Erdi mailako irakaskintzaren krisia . . . . .	13
Gurasoekin elkarrizketan . . . . .	18
Ikastolan lanean . . . . .	20
Ugaztunak ikasteko materiala . . . . .	22
Bertsolaritzan . . . . .	29
Espezializatze bidean . . . . .	32
Gure egoera zertan den . . . . .	34
Joannes Etxeberri Eskola . . . . .	37
Din . . . Dan . . . boleran . . . . .	40
Non-Zer . . . . .	42

